



**LIZARTZAKO**  
**UDALA**  
**GIPUZKOA**

**UDALAREN OSOKO BILKURAREN AKTA**

**BERTARATUAK**

**alkate-udal burua**

LEIRE GORDO CASTRO

**zinegotziak**

AITZIBER ABASOLO DE LA PEÑA

ENEKO ELOLA JAUREGI

MIREN JOSUNE ZUBELDIA

ETXEBERRIA

IGO EIZAGIRRE SAEZ

OIER MINTEGI ZEBERIO

ENERITZ ITURBE URDALLETA

**IDAZKARIA**

ANA JESUS ZABALA GARMENDIA

Lizartzan, 2017ko abenduaren 28an, arratsaldeko 18:30etan, eta Udaleko alkate udalburua, Leire Gordo Castro izanik, Udaletxeko Bilkura Aretoan bildu dira alboan adierazitako zinegotziak.

Bilkuraren fede ematen du Ana Jesus Zabala Garmendia, udal-idazkari-kontu hartzaileak.

Bilkurari hasiera eman dio presidenteak, eta hauek izan dira jorratutako

**GAIK**

**LEHENA. AURREKO BILKURAKO AKTA ONARTZEA.**

Alkateak, aurreko saioaren aktari ezer esatekorik badagoen galdetu du, eta inork ezer esatekorik ez duenez, aho batez onartu da.

**BIGARRENA. ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA**

Udal honi subsidiarioki aplikagarri zaion apirilaren 2ko 7/85 Legearen 22.2 a) artikuluan adierazitako ahalmena gauzatzearren, eta Tokiko Erakundearen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoari buruzko Araudia onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 42. artikuluan adierazitakoari jarraiki, Udalburuak Batzarrari jakinarazi dizkio ohiko azken bileraz geroztik hartutako erabakiak:

2017/382 Dekretua

2017/385 Dekretua

2017/399 Dekretua

2017/408 Dekretua

2017/412 Dekretua

2017/424 Dekretua

2017/435 Dekretua

2017/448 Dekretua

2017/384 Dekretua

2017/397 Dekretua

2017/406 Dekretua

2017/411 Dekretua

2017/417 Dekretua

2017/425 Dekretua

2017/438 Dekretua

2017/453 Dekretua



**LIZARTZAKO**

**U D A L A**

**GIPUZKOA**

2017/454 Dekretua  
2017/457 Dekretua

2017/455 Dekretua  
2017/465 Dekretua

Jakinaren gainean gelditu da Batzarra.

**HIRUGARRENA. URONDOA KALEAREN URBANIZAZIORAKO PROIEKTUAREN ONARPENA**

GAP ARKITEKTURA ETA OBRAK, Urondoa Kalearen Urbanizaziorako proiektua aurkeztu dute, bere aurrekontua: 42.762,48 € (Bez barne) delarik.

Urondoa Kalearen Urbanizaziorako proiektua aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

**LAUGARRENA. URONDOA KALEAREN URBANIZAZIORAKO OBRAREN KONTRATAZIORAKO BALDINTZA PLEGUEN ONARPENA**

**JURIDIKO - EKONOMIKO ADMINISTRAZIO KLAUSULA PARTIKULARREN PLEGUAK "LIZARTZAN URONDOA KALEAREN URBANIZAZIO OBRA" KONTRATUA ADJUDIKATZEKO**

**I. KONTRATUAREN EDUKIA**

**1. IZAERA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA**

Kontratu hau administrazio-izaeradun hornidura-kontratu da, Sektore Publikoko Kontratuen gaineko Legeko testu bategina ontzat ematen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera.

Obra kontratu honen adjudikazioa, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legislatiboaren 170, 171 d) eta 177.2 artikuluetan xedatutakoaren arabera, esleipen-jardunbidea, publizitate gabeko jardunbide negoziatua izango da.

Obra kontratua honako hauek zuzenduko dute: administrazio-klausulen plegu honek, baldintza teknikoen pleguak, Sektore Publikoko Kontratuen gaineko Legeko testu bategina ontzat ematen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua eta urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuak onetsitako Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Araudi Orokorrak (HAKLAO); gehigarri gisa,



**LIZARTZAKO**

**U D A L A**

**GIPUZKOA**

administrazio-zuzenbideari lotutako gainerako arauak aplikatuko dira, edo bestela, zuzenbide pribatuari lotutakoak.

Administrazio-klausula partikularren plegu honen eta espedientea osatzen duen gainerako dokumentazio teknikoaren artean kontraesana baldin badago, plegu honetan xedatutakoa gailenduko da.

## **2. KONTRATUAREN HELBURUA**

Plegu honetan oinarrituta gauzatzen den kontratuaren helburua "LIZARTZAN URONDOA KALEAREN URBANIZAZIO OBRA" izango da, baldintza tekniko partikularren pleguko zehaztapenen arabera.

## **3. GONBIDAPENAK.**


Kontratazio honetarako gonbidapenak egingo dira, telefax edo posta elektronikoz bidez. Gonbidapen horiek kontratua gauzatzeko gai diren hiru enpresari bidaliko zaizkio, hori posible bada.

## **4.- PARTE HARTZEKO AHALMENA ETA PROPOSAMENEN AURKEZPENA.**

1.- Lizitazio honetan parte hartu ahal izango dute gaitasun juridikoa eta jarduteko gaitasuna duten eta kaudimen ekonomiko, finantzario eta teknikoa duten persona natural edo juridiko guztiek baldin eta Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen Testu Bateratua onesten duen, azaroak 14ko 3/2011 Errege Dekretu legegilearen 60. artikuluan zehaztutako kontratatzeke debekuen kasuren baten barnean ez badaude.

Kontratu honen lizitazioan abantaila gehien dituen eskaintza ekonomikoa aurkeztzen duen eskaintzaileak bere kaudimen ekonomikoa finantzieroa eta teknikoa egiaztatu beharko du Plegu honetako 16.2 klausulan adierazten den moduan.

2.- Enpresari batzuk deialdian batera parte hartzeko interesa dutenean, aldi baterako enpresa elkarteak sortu ahal izango dute. Esleipena beren alde egiten den arte ez da beharrezkoa izango elkarte hori eskritura publikoaren bidez formalizatzea. Kasu horretan, enpresariak solidarioki erantzungo dute Administrazioaren aurrean eta elkartearen ordezkari edo apoderatu bakarra izendatu beharko dute. Kontratutik etorritako eskubideak erabiltzeko eta obligazioak betetzeko beharreko ahalmenak izango ditu ordezkari horrek kontratua bukatu arte.



**LIZARTZAKO**

**UDALA**

**GIPUZKOA**

3.- Interesatuak honako baldintzetan aurkeztuko dituzte bere eskaintzak:

- Kontratazio prozeduran parte hartzeko jasotako gonbidapena jaso den egunaren biharamunetik hasi eta hurrengo 15 egun naturaleko **epean**. Azkeneko eguna balioduna ez balitz, epea hurrengo egunerarte luzatzen dela ulertuko da.

- Bi era hauetako batean:

a) Lizartzako Udaleko **Leihatilan**, (Askatasunaren Plaza 1), lanegunetan eta bulego horiek irekita dauden ordutegian.

b) **Posta ziurtatuaren bidez**, honako helbide honetara zuzendua: "LIZARTZAKO UDALA, Askatasunaren Plaza, 1, 20.490 LIZARTZA. Erreferentzia: "Lizartzan, Urondoa Kalearen Urbanizazio obra" bidaltzaileak eskaintza hori Posta bulegoan jarri duen eguna justifikatu behar du eta posta elektronikoko helbidera (lizartza.lizartza.eus) eskaintza bidali duela jakinarazi behar dio kontratazio organoari egun berean. Bi baldintza horiek ez badira betetzen, proposamena ez da onarturiko proposamenak aurkezteko epea amaitu ondoren jasotzen bada. Halaz ere, zehaztutako egun horren ondoren haman egun natural igarotzen badira proposamena jaso gabe, proposamen hori ez da inola ere onartuko.

Proposamenak behar bezala aztertu eta prestatu ahal izateko, Baldintza Pleguak Lizartzako Udalan egongo dira ([www.lizartza.eus](http://www.lizartza.eus)), kontratatzailearen profilan, interesatuen eskura.

Era berean, espediente administratiboa Lizartzako Udaleko bulegoetan aztertu ahal izango da (Askatasunaren Plaza, 1), bulego orduetan, deialdia jakinarazten den egunetik hasi eta eskeintzak aurkezteko epea bukatzen den arte.

4.- Interesatuak GUTUNAZAL ITXI BATEAN aurkeztuko dituzte beren proposamenak, honako izen honekin: "*LIZARTZAN URONDOA KALEAREN URBANIZAZIO OBRAren kontratazioan parte hartzeko proposamena*". Gutunazal hori eskari orokorarekin batera sartuko dira sarrera-erregistroan.

Kartazalean dokumentazio hau sartuko da:

a) Bai bere izenean eta bai beste pertsona fisiko edo juridiko baten izenean, Proposamena aurkezten duen pertsonaren N.A.N.



**LIZARTZAKO**

**U D A L A**

**GIPUZKOA**

Ardurapeko aitortena, Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen Testu Bateratua onesten duen, azaroak 14ko 3/2011 Errege Dekretu legegilearen 60. artikuluan zehaztutako kontratatzeko debekuen kasuren baten barnean ez dagoela eta Administrazioarekin kontratatzeko legez ezarritako baldintzak betetzen dituela ziurtatzen duena (Plegu honetako II. Eranskina).

- b) Eskaintza hobeto ezagutzeko beharrezko irizitako dokumentu guztiak eta Plegu honetako 15. klausulan ezarritako irizpideen arabera baloratzeko balio izango duten guztiak.

Zehazki, aurkeztu beharko da:

- **Obra gauzatzeko epea.**
- **Proposamen teknikoa.** Lizitzaileak Memoria Tekniko bat aurkeztu beharko du, eta hor adieraziko da enpresa lizitzaileak zein metodologia eta/edo metodo proposatzen duen proiektuan deskribatutako lanak egiteko (Lanaren antolaketa, egin beharreko obraren azterketa eta atalik garrantzitsuenak, eta lanok egiteko aurreikusitako bitartekoak). Atal horren garapenak gehienez 20 orri hartuko ditu. Orriak DIN A4 formatukoak izango dira. 20. orrialdetik aurrerako edukia ez da baloratuko. Ez dira zenbatuko eskaintza ulertzen laguntzeko diren azal eta aurkibideak.

**Lanen programa** Egin beharreko lanen programazioa aurkeztuko da; banakatuta adieraziko dira atal eta tarte guztiak, eta giza baliabide, makina eta talde laguntzaileen azterketarekin justifikatuko da. Obrako epearen justifikazioa eta Obra hasteko epea eta prestasuna baloratuko da.

- c) Eskaintza ekonomikoa, Plegu honen amaieran erantsitako Proposamen Ereduan jasoa (I. Eranskina), behar bezala beteta.

5.- Eskeintzak aurkezteko, hauek dira bereziki kontutan hartu beharreko aspektuak:

*\* Aurreko dokumentu guztiak jatorrikoetan, kopia kautoetan edo konpultsatuetan, edo fotokopia arruntetan aurkeztu ahal izango dira. Baina, azkeneko kasu horretan, abantaila gehien dituen eskaintza ekonomikoa aurkeztu duen eskaintzaileak aipatutako dokumentazio horren jatorrikoak edo kopia konpultsatuak aurkeztu beharko ditu, kontratua esleitu aurretik.*



**LIZARTZAKO**  
**UDALA**  
**GIPUZKOA**

*\*\*Hainbat enpresa aldi baterako enpresa elkarte gisa aurkezten badira lizitazio honetara, enpresari horietako bakoitzak aurreko 1. eta 2. ataletan adierazitako dokumentazioa eman beharko du.*

*Elkarte Administrazioaren aurrean eraginkorra izan dadin, aski izango da gutunazal honetan idazki bat eranstea sinatzen duten enpresarien izenak eta zirkunstantziak adieraziz, bakoitzaren partaidetza zehaztuz eta kontratua indarrean dagoen bitartean Udalaren aurrean guztien ordezkaritza osoa izango duen pertsona izendatuz.*

*\*\*\*Atzerriko enpresek, Sektore Publikoaren Kontratuaren Legearen Testu Bateratua onesten duen, azaroak 14ko 3/2011 Errege Dekretu legegilearen 55. eta 58. artikuluek, eta Administrazio Publikoetako Kontratuaren Legearen Araudi Orokorra onartzen duen urriaren 12ko 1.098/2001 Errege Dekretuaren 9. eta 10. artikuluek aurreikusitako moduan egiaztatu beharko dute beren gaitasuna.*

*\*\*\*\* Ereduearen arabera idatzi ez den proposamena ekonomiko bakar bat ere ez da onartuko.*

*\*\*\*\*\* Prezioen eskaintzaren banakatzearan antzeman daitezkeen akats aritmetikoak konpontzeko, oinarrizko prezioaren eta BEZ kopuru aplikagarriaren zifrak hartuko dira baliozkotzat eta ofizioz egingo dira guztizko prezioa lortzeko dagozkion kalkuluak.*

## **5. LEKUA ETA EPEA**

- 1.- Kontratu honen xede den erreforma obraren **lekua** hau izango da: Lizartzako Urondoa Kalea.
- 2.- Obra gauzatzeko gehienezko **epea** ondorengoa izango da: **LAU HILABETE (4)** kontratua sinatzen denetik.

Enpresa esleipendunak une oro bete beharko ditu Obra-zuzendaritzak lanak koordinatzearen emandako jarraibideak. Kontratatik aurkeztuko duen lan-programari buruzko udal ebazpenean zehaztuko dira obrako zati edo unitateak egiteko epe partzialak (4. klausula).

Edonola ere, esleipenaren akordioa jakinarazi eta kontratuko lanak egiten hasteko egunaren artean gehienez ere hilabeteko tartea egongo da. Obrak bere epean amaitzen ez badira, esleipendunak berandutzagatiko erantzukizunei aurre egin beharko die, nahiz eta Administrazioak aurretik ez ohartarazi.



**LIZARTZAKO**  
**UDALA**  
**GIPUZKOA**

*Eskaintzaileek epe hori hobetu dezakete.*

## **6. BALIO ZENBATETSIA ETA LIZITAZIO AURREKONTUA**

Kontratuaren balio zenbatetsia (BEZ barne), BERROGEITA BI MILA ZAZPIEHUN ETA HIRUROGEITA BI euro BERROGEITA ZORTZI zentimokoa da (42.762,48 €).

Lizitaziorako oinarrizko aurrekontua lote bakoitzaren gasturako gehienezko aurrekontuak osatzen du (BEZ kanpo), eta lizitaziorako oinarrizko aurrekontuak zehaztuko du zenbatekoa gainditzen duten eskaintzen bazterketa:

Lizitazio mota	35.340,89 €.
BEZ %21	7.421,59 €.
Guztira	42.762,48 €.

Proposamen ekonomikoan, partida independente gisa, jasanarazi behar den Balio Erantsiaren gaineko Zergaren zenbatekoa adierazi beharko da.

Eskaintza ekonomikoak eurotan egingo dira eta prezioak bi dezimalekin emango dira.

## **7. FINANTZAZIOA**

Kontratu honetatik ondorioztatzen diren behar ekonomikoak betetzeko aurrekontu-kreditua dago 2018 ekitaldiko ekonomiko aurrekontuaren 601.430.00.01 partidan.

## **8. ORDAINTZEKO ERA**

Egindako obrak hileroko ziurtagirien bidez ordainduko dira. Obren zuzendari fakultatiboak egingo ditu ziurtagiri horiek.

Enpresa kontratistak eskubidea izango du emandako kontratuarekin —eta, halakorik balego, aldaketekin— bat etorri, benetan egin dituen lanen prezio hitzartuak kobratzeko.

Ordainketa egiteko, Administrazioak hileroko (hurrengo hileko lehen hamar egunetan) epealdi horretan egindako lanei buruzko ziurtagiriak egingo ditu. Egindako ziurtagirien ordainketa horiek, berez, kontura egindako ordainketak izango dira, azken neurketan sartutako zuzenketa eta aldaketek agindutakoaren mende geldituko dira, eta ordainketa horrek inolaz ere ez du esan nahiko ziurtagirian sartutako obrak onartzen eta jasotzen direnik.



**LIZARTZAKO**  
**U D A L A**  
**GIPUZKOA**

Obrako ziurtagiriak edo kontratua osorik edo zati batean egin dela frogatzeko beste edozein agiri egiten denetik kontatzen hasi eta hurrengo hogeita hamar eguneko epearen barruan ordaindu beharko du prezioa Administrazioak, 222.4 artikuluan jarritako epe bereziari utzi gabe. Administrazioa ordainketa hori egiten atzeratzen bada, berandutza-interesak eta kobrantza-kostuen kalte-ordaina ordaindu beharko dizkio kontratistari, hogeita hamar eguneko epe hori igarotakoan, uztailaren 5eko 15/2010 Legean ezarritakoaren arabera. Lege horrek abenduaren 29ko 3/2004 Legea — merkataritzako eragiketetako berankortasunaren aurkakoa— aldatzen du.

Ziurtagiriak Lizartzako Udalean erregistratu beharko dira, egiten direnetik kontatzen hasi eta bost egun balioduneko epean. Epe hori pasatu ondoren erregistratzen badira, ziurtagiria erregistratu zenetik hasiko da kontatzen Udalak prezioa ordaintzeko izango duen epea, eta ez ziurtagiria egin zenetik (Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren seigarren xedapen iragankorra).

Kontratistari ez dagozkion arrazoiengatik, kontratuaren helburu diren prestazioak aldi batean betetzen ez badira, dagokion ziurtagirian kendura proportzionalak egingo dira.

Kontratuaren epean edo epeetan bukatzeko aurreikusita zeuden eran baino azkarragoan egin ditzake lanak kontratistak; aldiz, ez ditu azkarrago egingo, baldin obrako zuzendaritzak uste badu horren kontrako arrazoiak daudela.

## **9. PREZIOAK BERRIKUSTEA**

Ez da prezioak berrikusiko aukerarik izango.

## **10. BEHIN BETIKO BERMEA**

Kontratuaren behin-behineko adjudikaziodunak adjudikazioaren zenbatekoaren %5ekoa (BEZ kanpo) izango den behin betiko bermea eratu beharko du.

Berme hori jartzeko epea 10 egun baliodunekoa izango da, bermea jartzeko jakinarazpena egiten zaion egunetik aurrera kontatuta.

Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen Testu Bateratua, azaroak 14ko 3/2011 Errege Dekretu legegilearen 96. artikuluan baimendutako edozein modutan (esku-diruz, Zor Publikoko balioez, abalez edo kauzio aseguruaz) eta autzen duena indarrean dagoen legeriak araututako baldintzetan eman ahal izango dira bermeak.





**LIZARTZAKO**  
**U D A L A**  
**GIPUZKOA**

Bermea dirutan jartzen bada, zenbatekoa Kutxabanken sartuko da 2095/5053/66/1061148366 zenbakiko kontu korrontean, eta abonu-agiriaren kopia bat eramango da Diruzaintzara. Horrekin batera kontu korronte baten zenbakia ere aurkeztuko da, bermea itzultzean dirua bertan sartzeko.

Kontratua aldatzearen ondorioz haren balioak ere aldaketak izaten baditu, bermea berriz egokitu egingo da. Hori egiteko hamabost eguneko epea egongo da, kontratua aldatzeko ebazpenaren jakinarazpena esleipendunari egiten zaion egunetik kontatzen hasita. Hori guztia Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginak 99. artikuluan xedatutakoari jarraiki.

Bermearen mende geratuko dira honakoak:

- Kontratuan sartutako prestazioak egoki betetzea.
- Zereginak betetzean atzeratzeagatik kontratistak Administrazioari sortutako gastuak.
- Kontratua betetzean edo betetzen ez den kasuetan, Administrazioari eragindako kalte eta galerak, baldin kontratua amaitzea erabakitzen ez bada.
- Kontratistari jarritako zigorrak.
- Kontratu amaiera erabakiz gero, konfiskazioa.

Administrazioak bermea erabiltzen badu, berehala jarri beharko da berriz ere. Hori egiteko epean kopuru hori borondatez jartzen ez bada, hurrengo ziurtagiritik kenduko da. Artikuluak xedatutakoaren baitan eta HAKLAOko 65.2 eta 3. Artikuluetan xedatutakoaren arabera itzuli edo indargabetuko da.

Hartze partziala baldin bada, ezin izango da behin betiko bermearen zati partziala itzuli edo indargabetu.

## **12.- KONTRATISTAREN ESKUBIDEAK ETA OBLIGAZIOAK.**

- 1.- Prezioa kobratzeko eskubidea, zortzigarren klausularen araberkoa izango da.
- 2.- Kontratistak honako betebeharrak berezi hauek ditu, Plegu honetan jasotako eta arau osagarriak aplikatzeak ezarritako betebeharrak gain:



**LIZARTZAKO**  
**U D A L A**  
**GIPUZKOA**

- a) Obra, kontratuan zehaztutako denboran eta lekuan emango ditu, preskripzio teknikoen eta administrazio-klausulen arabera, eta haien interpretaziorako administrazioak kontratistari emandako jarraibideak kontuan hartuta. Era berean, ezin izango du kontratua, osorik edo neurri batean, beste pertsona baten esku utzi administrazioaren baimen espresurik gabe.
- b) Behin-betiko fidantza zehaztutako epean jarriko du, eta bidezkoa denean, osagarria.
- c) Esleipen-jardueran zehaztutako epean formalizatuko du kontratua.
- d) Kontratuaren iraupen osoan administrazio publikoekin kontratatzeko gaitasuna mantentzea bermatu beharko du. Hamabost eguneko epean emango du etor litezkeen ezintasun eta bateraezintasunen berri.

#### **11. BEHIN BETIKO BERMEA ITZULI ETA INDARGABETZEA**

Behin betiko bermea ez da itzuli edo indargabetuko bermearen epea amaitu eta kontratua behar bezala bete arte, edo kontratistak errurik eduki gabe kontratuaren suntsiarazpena adierazi arte. Behin betiko bermea Sektore Publikoko Kontratuen gaineko Legeko testu bategina ontzat ematen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 102. artikulua xedatutakoaren baitan eta HAKLAOko 65.2 eta 3. Artikuluetan xedatutakoaren arabera itzuli edo indargabetuko da.

Hartze partziala baldin bada, ezin izango da behin betiko bermearen zati partziala itzuli edo indargabetu.

#### **12.- KONTRATISTAREN ESKUBIDEAK ETA OBLIGAZIOAK.**

- 1.- Prezioa kobratzeko eskubidea, zortzigarren klausularen arabera izango da.
- 2.- Kontratistak honako betebeharrak berezi hauek ditu, Plegu honetan jasotako eta arau osagarriak aplikatzeak ezarritako betebeharrak gain:
  - a) Obra, kontratuan zehaztutako denboran eta lekuan emango ditu, preskripzio teknikoen eta administrazio-klausulen arabera, eta haien interpretaziorako administrazioak kontratistari emandako jarraibideak kontuan hartuta. Era berean, ezin izango du kontratua, osorik edo neurri batean, beste pertsona baten esku utzi administrazioaren baimen espresurik gabe.




**LIZARTZAKO**  
**UDALA**  
**GIPUZKOA**

- b) Behin-betiko fidantza zehaztutako epean jarriko du, eta bidezkoa denean, osagarria.
- c) Esleipen-jardueran zehaztutako epean formalizatuko du kontratua.
- d) Kontratuaren iraupen osoan administrazio publikoekin kontratatzeko gaitasuna mantentzea bermatu beharko du. Hamabost eguneko epean emango du etor litezkeen ezintasun eta bateraezintasunen berri.
- e) Lizitazioaren eta kontratuaren ondorioz sortutako gastu guztiak ordainduko ditu; honakoak besteak beste: Aldizkari Ofizialetan eta prentsan azaldutako iragarkiak, fidantzen eraketa, eta, hala behar badu, kontratua eskritura publikoan bere kopiekin formalizatzea.
- f) Lan Legeria, Gizarte Segurantza eta Hitzarmen Kolektiboen alorrean dauden xedapen guztiak beteko ditu, eta baita 31/1995 Legean (Laneko Arriskuen Prebentziorako Legea) eta lege hori garatzen duten errege-dekretuetan jasotako guztia (bereziki langileentzako prestakuntza-ekintzei eta babes-ekipo indibidualen hornidurari dagokienean), eta zergaalarreko xedapenak ere bai. Horrenbestez, udalkorporazioak eta lanen Zuzendaritzak ez dute inolako ardurarik izango xedapen horiek ez betetzetik etor litezkeen erantzukizunetan.
- g) Egiten dituen lanen eta emaniko prestazio eta zerbitzuen kalitate teknikoaren erantzukizuna izango du, eta baita kontratuaren exekuzioan hutsegiteak eta okerrak gertatzeagatik, metodo ez egokiak erabiltzeagatik edo behar bezala ez jarduteagatik administrazioak edo hirugarren pertsonak izan ditzaketen ondorioen erantzukizuna ere.
- h) Lanak egiterakoan nahiz bere obligazioak betetzerakoan Udalari eta hirugarren pertsonari eragiten dizkien kalte guztiak indemnitzatzea.
- i) Hornidura emateko edota garraiatzeko gastuak onartzea.

### **13.- ADMINISTRAZIOAREN ESKUBIDEAK ETA OBLIGAZIOAK.**

- 1.- Kontratuaren ikuskapena Udalak egingo du bere langile teknikoen bidez. Udalak, lana modu eraginkorrean betetzeko behar diren jarraibideak eman ahal izango dizkio kontratistari, kontratua arautzen duten klausulak oinarritzat hartuta, eta alkateak dituen goragoko mailako zuzendaritza- eta ikuskaritza-ahalmenei kalterik egin gabe.



**LIZARTZAKO**

**U D A L A**

**GIPUZKOA**

- 2.- Zehaztutako kopuruak ordaintzeko obligazioa du Administrazioak, zazpigarren klausulan xedaturikoaren arabera.

## **II.- KONTRATUAREN ADJUDIKAZIOA**

### **14. KONTRATAZIO MAHAIA ETA PROPOSAMENAK IREKITZEA.**

- 1.- Kontratazio Mahaia, Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen Testu Bateratua onesten duen, azaroak 14ko 3/2011 Errege Dekretu legegilearen 320. artikulua xedatutakoaren arabera osatuko da.
- 2.- Kontratazio Mahaiak, proposamenak irekiko ditu, Lizartzako Udaletxeko bulegoan (Askatasunaren Plaza, 1) proposamenak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo asteko astelehenean, 10:00etan. Egun hori, bulegoetako egutegiaren arabera laneguna ez balitz, irekitzeko ekitaldia hurrengo lanegunera atzeratuko da.

Eskaintzaileek 4. klausulan exijitutako dokumentu guztiak sartuko dituzte aurkeztutako dokumentazioaren gutun-azalean, eta ez da onargarria izango dokumentu horiek berak beste lizitazio baterako erabiltzea, nahiz eta beste lizitazio horretako plikak irekitzeko ekitaldia aldi berean egin.

Mahaiak akats materialak ikusiko balitu aurkeztutako dokumentazioan, komenigarri ikusten badu, gehienez hiru egun balioduneko epea eman ahal izango du, eskaintzaileak akatsa zuzen dezan. Horretarako errekerimenduak faxez edo posta elektronikoz egingo dira lehentasunez, enpresak lizitazioan aurkeztu duendokumentazioan aipatutako zenbaki edo helbidera zuzenduta.

- 3.- Mahaiak komenigarritzat jotzen dituen txosten tekniko eta juridikoak eska ditzake eta kontrataziorako organoari esleipen-proposamena igorriko dio.
- 4.- Eskaintzak irekitzeko ekitaldi publikoak amaitu ondoren, ekitaldi horri buruzko dokumentazioa kontsultatu ahal izango dute prozeduran parte hartu dutenek, Lizartzako Udalaren egoitza elektronikotik ([www.lizartza.eus](http://www.lizartza.eus)). Aukera hau bideratzeko, enpresaren ordezkariak jakinarazi egin beharko ditu, kontratazioan parte hartzeko erantzukizun-aitortzaren eredian horretarako ezarritako atalean (atxikitutako eredu), lege onartutako sinadura elektronikoko edozein sistemaren bidez (e-DNI. ONA hiritar txartela...) aipatutako informazio hori eskura lezakeen pertsonaren izena eta NAN. Ahalmen horretan sartuta egongo da, une horretatik esleitu arte, espedientearen egoera kontsultatzeko aukera ere.

### **15. ESLEIPEN-IRIZPIDEAK**



**LIZARTZAKO**

**U D A L A**

**GIPUZKOA**

1. Kontratazio organoak, gaitasun eta halmen nahiko duten eskaintzaileekin, 4. Klausulan zehaztutako eskaintzaren alderdi ekonomiko, Tekniko eta/edo logistikoari buruzko negoziazioa egin ahal izango du, beti ere, parte hartzaile guztien tratu berdina bermatuz, diskrimazioa eta parte hartzaile batekiko abantaila suposa dezaken informazioa eman gabe.

Esleipena erabakiko da aurretik azterketa bat egin ondoren eta, hala badagokio, eskaintzen baldintzak aztertu ondoren, aurrerago adierazten diren esleipen irizpideak kontuan hartuz.

2. Esleitzeko irizpideak:

Eskaintzak baloratzeko, honako irizpideak kontuan hartuko dira:

- 1. irizpidea: Eskaintza ekonomikoa. Haztapena: 0tik 45 puntura.
- 2. irizpidea: Gauzatze-epea. Haztapena: 0tik 25 puntura.
- 3. irizpidea: Eskaintza teknikoa. Haztapena: 0tik 25 puntura
- 4. irizpidea: Hobekuntzak. Haztapena: 0tik 5 puntura.

#### **Lehen irizpidea. Eskaintza ekonomikoa (0tik 45 puntura).**

Eskaintza ekonomiko onena egiten duen lizitatzailari emango zaio puntu gehien. Gainerako eskaintza ekonomikoei 1,75 puntu gutxiago emango zaie eskaintza onenetik gorako portzentajeunitate bakoitzeko.

Eskaintzak neurritz kanpokoak direla edo balore anormalak dituztela ebazteko, aztertu egingo da lizitatzaila ondorengo kasu hauetakoren batean sartzen ote den, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginak 152. artikuluan eta Herri Administrazioetako Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorrak 85. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz:

- Lizitatzaila bakarra izanik, aurkeztutako eskaintza ekonomikoak lizitazioaren oinarritzko aurrekontua portzentajezko 30 unitatetan beheratzen badu.
- Bi lizitatzaila izanik, aurkeztutako eskaintza ekonomikoak beste diru-eskaintza portzentajezko 30 unitatetan beheratzen badu.
- Hiru lizitatzaila izanik, aurkeztutako eskaintza ekonomikoak portzentajezko 15 unitatetan beheratzen badu aurkeztutako eskaintza guztien batez besteko aritmetikoa. Hala ere, batez besteko hori ateratzeko ez da sartuko eskaintza



**LIZARTZAKO**

**U D A L A**

**GIPUZKOA**

ekonomiko altuena, baldin batez besteko hori baino portzentajezko 15 unitate altuagoa bada. Dena den, portzentajezko 30 unitateko beherapena neurritz kanpokotzat joko da.

Eskaintza neurritz kanpokotzat jotzeko, kontratazio-mahaiak enpresaren kaudimenaren eta aurkeztutako eskaintzaren arteko harremana kontuan har dezake.

Kasu horretan, entzunaldia emango zaio eskaintza aurkeztu duen lizitatzailari, eskaintzaren balorazioa justifikatu dezan eta eskaintzaren baldintzak zehaztu ditzan, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginak 152.3 artikuluan zehaztutako parametroetan.

Lizitatzailak azaldutakoa —eta, beharrezko badira, baita dagozkion txostenak ere— ikusita, kontratazio organoak erabakiko du eskaintza kontuan hartu daitekeen ala ez. Erabakitzen bada eskaintza ezin dela bete balore anormalak edo neurritz kanpokoak sartu direlako, eskaintza prozeduratik baztertuko du.

### **Bigarren irizpidea. Gauzatze-epea (0tik 25 puntura)**

Gauzatze eperik motzena eskaintzen duenari emango zaio puntu gehien, 0 puntu proiektuaren gauzatze-epea berdintzen duenari eta bestelako eskaintzei, berriz, puntuak proportzionalki.

### **Hirugarren irizpidea. Proposamen teknikoa (0tik 25 puntura).**


Lizitatzailak Memoria Tekniko bat aurkeztu beharko du, orrialdeak behar bezala zenbatuta, eta bere aurkibidearekin. Bertan, baloratuko diren alderdiak zenbatuta bilduko dira, eta memoria horren edukia nahikoa izango da egin beharreko obren norainokoa eta edukia kalibratzeko.

Kontzeptu hauek baloratuko dira:

1- Memoria (0tik 15 puntura). Memoria bat aurkeztuko da, eta hor adieraziko da enpresa lizitatzailak zein metodologia eta/edo metodo proposatzen duen proiektuan deskribatutako lanak egiteko.

Puntu horiek honela banatuko dira:

a) Lanaren antolaketa (0tik 5 puntura).



**LIZARTZAKO**  
**U D A L A**  
**GIPUZKOA**

- b) Egin beharreko obraren azterketa eta atalik garrantzitsuenak, eta lanok egiteko aurreikusitako bitartekoak (0tik 5puntura).
- c) Arazoen azterketa (0tik 5 puntura).

Atal horren garapenak gehienez 20 orri hartuko ditu. Orriak DIN A4 formatukoak izango dira. 20. orrialdetik aurrerako edukia ez da baloratuko. Ez dira zenbatuko eskaintza ulertzen laguntzeko diren azal eta aurkibideak.

2- Lanen Programa (0tik 10 puntura). Egin beharreko lanen programazioa aurkeztuko da; banakatuta adieraziko dira atal eta tarte guztiak, eta giza baliabide, makina eta talde laguntzaileen azterketarekin justifikatuko da. Honako puntuak baloratuko dira:

- Obrako epearen justifikazioa (0tik 6 puntura). Obrako fase guztiak identifikatuko dira, eta jarduera kritikoak zein kanpoko baldintzak eta klimatologikoak ere zehaztuko dira. Jarduera bakoitzaren iraupena justifikatuko da, eta aurreikusitako errendimenduak nahiz proposatzen diren baliabide teknikoak, makinak eta giza baliabideak zehaztuko dira.
- Obra hasteko epea (0tik 4 puntura). Obrak hasteko prestasuna adieraziko da.

Honela baloratuko da:

- a) Obra hasteko prestasuna: kontratua sinatzen denetik aste 1 (4 puntu).
- b) Obra hasteko prestasuna: kontratua sinatzen denetik 2 aste (2 puntu).

Atal horren garapenak gehienez 10 orri hartuko ditu. Orriak DIN A4 formatukoak izango dira. 10. orrialdetik aurrerako edukia ez da baloratuko. Ez dira zenbatuko eskaintza ulertzen laguntzeko diren azal eta aurkibideak.

Dokumentazio guztia formatu digitalean entregatu beharko da.

**Laugarren irizpidea. Hobekuntzak (0tik 5 puntura).**

- Hobekuntza berme-epean (5 puntu)

Honela baloratuko da:

- Berme-epea urtebete gehiago luzatzea (2,50 puntu).



**LIZARTZAKO**  
**U D A L A**  
**GIPUZKOA**

- Berme-epea 2 urte gehiago luzatzea (2,50 puntu).

**16.- KONTRATUA ESLEITZEA ETA ESLEIPENA JAKINARAZTEA.**

- 1.- Administrazioak, aukeran, ahalmena izango du kontratua proposamenik onuragarrienari esleitzeko, aurreko klausulan ezarritako irizpideak aplikatuz, proposamenaren balio ekonomikoari kasu egin beharrik gabe, edo, bestela, lizitazioa esleitu gabe utz dezake, betiere erabakia esleipen-irizpideen arabera hartuz.
- 2.- Esleipen-proposamena erabaki ondoren, Kontratazio Mahaiak errekerimendua egingo dio abantaila gehien dituen eskaintza ekonomikoa aurkeztu duen eskaintzaileari, hamar egun balioduneko epean, errekerimendua jaso ondorengo egunetik kontatuta, ondorengo dokumentazioa aurkez dezan:
  - 1.- (Pertsona juridikoak direnean soilik) Osaera edo aldaketa eskritura, hala behar badu, Merkataritza Erregistroan inskribatua, baldintza hori eskatzen den kasuetan. Bestela, osaera dokumentua, estatutuak edo sortze ekintza, jarduera arautzen duten arauak jasota, dagokion Erregistro Ofizialean inskribatuta, hala behar izanez gero.
  - 2.- Eskaintzaren sinatzailearen ordezkartza egiaztatzen duen dokumentazioa (pertsona horrek beste persona fisiko edo juridiko baten izenean jarduten duenean).
  - 3.- Ekonomia Jardueren gaineko Zergan alta emana duela eta zerga hori ordaindu duela (edo bere kasuan, salbuetsia dagoela) egiaztatzen duen agiria.
  - 4.- Ogasunak eta Gizarte Segurantzak egindako ziurtagiriak, zerga eta Gizarte Segurantzako obligazioak betetzen dituela egiaztatzen dutenak, Herri Administrazioetako Kontratuen Legea onesten duen urriaren 12ko 1.098/2001 Errege Dekretuko 13. artikulua eta hurrengoek xedaturikoaren arabera .
  - 5.- Kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa egiaztatzea, modu honen bidez:
    - 5.1. Erakunde finantzieroen egiaztageria edota, arrisku profesioanlengatik kalteordain aseguruaren justifikantea.
    - 5.2. Azken hiru urteetan egindako hornidura nagusien zerrenda (2014,2015 eta 2016). Zerrenda horretan, horniduraren zenbatekoa, datak eta hartzaile publiko nahiz





**LIZARTZAKO**  
**U D A L A**  
**GIPUZKOA**

pribatu adieraziko dira. Organo eskudunak emandako edo ikus-onetsitako ziurtagiriez egiaztatuko dira egindako hornidurak, hartzailea sektore publikoko erakunde bat denean edo hartzailea erosle pribatua denean, hark emandako ziurtagiriz edo, ziurtagiri horren ezean, enpresaburuaren adierazpenez. Zerrendan sartuta dauden eta hartzailea sektore publikoko erakunde bat izan zuten horniduren ziurtagiriak zuzenean kontratazio organoari jakinarazi ahalko dizkio hornidurak kontratatu zituen erakundeak.

- 6.- Kontratzeko gaitasuna edota kontratuari atxikitzera konprometitu den baliabideak esku badutela egiazten duen dokumentazioa ere, kontratazioorganoak eskatzen diona.
- 7.- Bidezkoa den behin betiko bermea eratu duela egiaztatu beharko du.

*Euskadiko Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistroan edo Estatuko Lizitatzailleen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean inskribatutako enpresek, 1., 2., 3. eta 4. puntuetan eskaturiko dokumentazioaren orde, Erregistro horietakoren batean inskribatua dagoen kontratista delako aitortza aurkeztu ahal izango dute. Udalak ofizioz egingo ditu, betiere ahal den neurrian, atal horietan eskatzen diren alderdi guztiak egiaztatzeko dagozkion jarduketak. Bestela, aipatutako dokumentazioa aurkezteko eskatuko du.*

Dokumentazio hori guztiaren originalak edo kopia autentiko edo konpultsatuak aurkeztu beharko dira. Errekerimendua adierazitako epean behar bezala bete ezean, ulertuko da eskaintzaileak kendu egin duela bere eskaintza; kasu horretan, dokumentazio bera eskatuko zaio eskaintzak sailkatuta geratu diren ordenaren arabera hurrengo eskaintzaileari.

- 3.- Behin betiko bermea jarri eta aipatutako dokumentazioa aurkeztu ondoren, kontratazio-organoak dokumentazioa jaso ondorengo hurrengo bost egun baliodunetan esleituko du kontratua.
- 4.- Esleipena motibatua izango da, izangai edo lizitatzailleei jakinaraziko zaie eta, aldi berean, Lizartzako Udalaren kontratugilearen profilean argitaratuko da ([www.lizartza.eus](http://www.lizartza.eus)).

Jakinarazpenean eta kontratugilearen profilean, 156.3 artikulua araberaz zein epetan formalizatu behar den adieraziko da.



**LIZARTZAKO**

**U D A L A**

**GIPUZKOA**

5.- Kontratuaren esleipena bi hilabeteko epe maximoan egingo da, proposamenak ireki ondorengo egunetik kontatuta. Ezarritako epean esleipen-erabakirik ematen ez bada, eskaintzaileek

### **17.- KONTRATUAREN FORMALIZATZEA**

Kontratua dokumentu administratiboan formalizatu beharko da, esleipenaren jakinarazpena jaso ondorengo hurrengo hamabost egun baliodun baino geroago ez. Nahikoa titulu izango da agiri hori, edozein erregistro publikotara sartzeko. Hala ere, kontratistak kontratua eskritura publiko bihurtzea eskatu ahal izango du, eta bere kargura izango dira horri dagozkion gastuak.

Kontratua formalizatzeko egintza Udaletxeko Idazkaritzako bulegoetan egingo da (Askatasunaren Plaza 1, Zerbitzuak hala eskatuta.

Formalizatu ondoren osatzen da kontratua.

### **III.- HORNIDURA ETA INSTALAZIO KONTRATUA BETETZEA**

#### **18.- KONTRATUA GAUZATZEA.**

- 1.- Obra kontratua ezingo da hasi, kontratistak kontratua sinatzen duen arte.
- 2.- Kontratista behartuta dago kontratua betetzera lanak egiteko finkatuta dagoen epe barruan, baita, bere kasuan, zehaztu diren zatiko epeak. Kontratista berandutzeak ez du Administrazioaren aldetik aurrez abisatu beharra ekarriko.

Zuinketa-akta izenpetzearekin batera hasiko da obra-kontratua betetzen, eta hori gehienez hamabost egun naturaleko epean egin beharko da, esleipena jakinarazten den egunetik kontatzen hasita. Bestalde, kontratua gauzatzen hasteko epea ez da hamabost egun baliodun baino luzeagoa izango, formalizatzen den egunetik kontatzen hasita.

Kontratista, berari egoztekoak diren arrazoiak tarteko, epea bere osotasunean betetzerakoan berandutu egin bada, Administrazioak kontratua suntsitzeko edo Sektore Publikoaren Kontratuaren Legearen Testu Bateratua onesten duen, azaroak 14ko 3/2011 Errege Dekretu legegilearen 212. artikuluan aurreikusitako zigorrak jartzeko erabakia hartu ahal izango du.



**LIZARTZAKO**  
**U D A L A**  
**GIPUZKOA**

3.- Kontratastak kontratua bere “arrisku eta kontura” onartzen duela ulertuko da, testu horren 215. Artikuluaren arabera.

### **19.- ATZERAPENA ETA BETETZE AKASTUNA**

#### *Atzerapena*

Kontratista, kontratua burutzeko ezarritako epe osoaren barruan kontratua betetzera behartuta dago.

Atzerapenaren eraketak ez du administrazioaren aurretiko jakinarazpenik behar.

Kontratastak berari egotzi ahal dakizkion arrazoiengatik, epe osoa edo partziala betetzerakoan atzeratzen baldin bada, kontratua ebaztea edo eguneroko zigorrak jartzearen artean aukeratu ahal izango du. Zigor proportzio hau izango du: 0,20 euro, kontratuaren prezioaren 1000 euro bakoitzeko.

Atzerapen-zigorra kontratuaren prezioaren %5eko multiplora heltzen den bakoitzean, kontratazio-organoak kontratua ebaztea edo zigor berriekin betetzen jarraitzea erabakitzeke eskubidea izango du.

Zigorrak aplikatu eta ordaintzeak, ez da bateraezina administrazioak kontratistari egotz ahal dakion atzerapenak sortutako kalte-galerengatik kalte-ordainak jasotzeko izan dezakeen eskubidearekin.


Atzerapena kontratistari egotz ezin dakion arrazoiengatik gertatzen bada, eta kontratastak bere konpromisoak betetzeko eskaintza egingo balu, adierazitako epea luzatuz gero, kontratazio-organoak gutxienez, galdutako denbora berbereko epea emango dio, kontratastak epe laburragoa eskatu ezean.

#### *Betetze akastuna*

Prestazioak akatsak baldin baditu, administrazioak kontratuaren aurrekontuaren %10aren zigor baliokidea ezarri ahal izango du.

Halaber, prestazioa betetzen ez bada, edo adjudikazio-irizpideak zehazteko kontuan hartu diren ezaugarrietan eragin duten akatsak baldin baditu, administrazioak kontratuaren aurrekontuaren %10aren baliokide den zigorra ezarri ahal izango du.

### **20.- KONTRATUA BETETZERAKOAN HIRUGARRENEI ERAGINDAKO KALTEENGATIK KONTRATISTAK DAUKAN ERANTZUKIZUNA**



**LIZARTZAKO**

**U D A L A**

**GIPUZKOA**

Kontratua betetzeko egin beharreko lanen ondorioz kalte eta galerarik eraginez gero, kontratista izango da haien erantzulea, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginak 214. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz. Horren ondorioetarako, 600.000 euroko aseguru-poliza bat izenpetu beharko du. Estaldura horrek indarrean jarraitu beharko du kontratuak irauten duen denbora osoan zehar

## **21.- OBRAREN AMAIERA ETA JASOTZEA**

Kontratua amaitutzat joko da, kontratistak kontratuko baldintzen arabera, eta administrazioaren onespenearekin, obra osoa egin dituenean.

Edonola ere, egiaztatzeko jasotze ekitaldi formal eta positiboa egingo da. Ekitaldia obra amaitzen denetik hilabeteko epean egingo da. Ekitaldiaren eguna eta lekua Obraren Zuzendaritzari jakinaraziko zaio, bertaratzeko, obra behar den bezala egin dela egiaztatu dezan.

Ondasunak ez baldin badaude jasotzeko moduan, jasotze-aktan berariaz agertuko da eta kontratistari jarraibide zehatzak emango zaizkio, akatsak konpondu edo hitzartutakoaren arabeko obra burutu dezan. Ez baldin bada konpondu edo ordezkatzeko, administrazioak kontratistaren kontura utziko ditu eta ordaintzeko betebeharretik salbuetsita geratuko da, edo ordaindutakoa berreskuratzeko eskubidea bereganatuko du.

## **22. BERMEAREN EPEA**

Gainera, urtebeteko berme-epea egongo da, harrera formalaren egunetik hasita zenbatu beharrekoa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginean eta Herri Administrazioetako Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorrean adierazitako ondorioetarako. Lizitatzailleak, bere eskaintzan, berme-epea hobetu ahalko du.

Berme-epean obren kontserbazioaren ondorioz sortutako gastu guztiak kontratistaren kontura izango dira, eta horrek ez du eskubiderik izango kontzeptu horrek eragindako kalte-ordainik jasotzeko.

Esleipendunak kontratua bete ez eta eraikuntzan ezkutuko akatsak izateagatik obra berme-epetik kanpo hondatzen bada, kontratistak kalte eta galerei aurre egiteko erantzukizuna izango du hamabost urtean, obrak esleitzaillearen esku utzi zirenetik kontatzen hasita. Epe hori amaitutakoan, bestelako kalte edo galerarik izan ez bada, esleipendunaren erantzukizuna amaitutzat joko da.



**LIZARTZAKO**  
**U D A L A**  
**GIPUZKOA**

### **23.- AZPIKONTRATAZIOA**

Azpi kontratazioa honako xedapenek arautuko dute: Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginak (227 eta 228 artikulua) eta urriaren 18ko 32/2006 Legeak, eraikuntza sektoreko azpi kontratazioa arautzen duenak.

Azpi kontratua egiteko, kontratistak idatziz jakinaraziko dio Administrazioari zein azpi kontratu egingo duen, eta adierazi egin beharko du, baita, azpi kontratistak kontratuaren zein zati egingo duen.

Baldin kontratistak betetzen ez baditu Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginak 227.2 artikuluan azpi kontrataziorako jarritako baldintzak, edo azpi kontrataziorako jarritako gehienezko muga berezia betetzen ez badu, 227.3 artikuluan araututako zigorra jarriko da.

### **24.- KONTRATUA SUNTSITZEA.**

Publikoaren Kontratuen Legearen Testu Bateratua onesten duen, azaroak 14ko 3/2011 Errege Dekretu legegilearen 223. artikuluan, oro har, kontratu administratiboetarako aurreikusitakoak, baita, hornidura kontratu etarako, Lege horren beraren 299. Artikuluan jasotakoak ere.

Kontratua suntsitzeko ondorengo kausa ezartzen da espresuki: esleipendunak kontratatzeke betekizunak galtzea (kontratistaren gaitasuna eta kontratatzeke debeku arrazoia ez izatea), Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen Testu Bateratuan ezartzen denaren arabera.

### **25.- KONTRATUAREN ALDAKETAK.**

Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen Testu Bateratua onesten duen, azaroak 14ko 3/2011 Errege Dekretu legegilearen 219. artikuluan arabera, administrazio-kontratu hau interes publikoko arrazoiengatik bakarrik aldatu ahal izango da, I. Liburuko V. Tituluan aurreikusitako moduetan eta kasuetan eta 211. artikuluan araututako prozeduraren arabera.

Kasu horietan, kontratazio-organismoak erabakitako aldaketak nahitaezkoak izango dira kontratistarentzat.

## **IV.- ESKUMENAK ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA**



**LIZARTZAKO**

**U D A L A**

**GIPUZKOA**

## **26. ADMINISTRAZIOAREN ESKUMENAK**

Hona administrazioak izango dituen eskumenak: kontratua interpretatzea, hura betetzeak sor litzakeen zalantzak argitzea, interés publikoko interesak direla medio hura aldatzea eta, hura etetea erabakitzea eta horren ondorioak zehaztea. Hori guztia, betiere Sektore Publikoko Kontratuen gaineko Legeko testu bategina ontzat ematen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuan eta Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Araudi Orokorrean ezarritako baldintza eta ondorioen barruan eta horien arabera.

## **27. JURISDIKZIO ESKUDUNA**

1.- Kontratazio honi dagozkion ebazpen eta izapideegintzei, azken horiek gaiaren oinarria zuzenean edo zeharka erabakitzen badute, prozedura jarraitzeko ezintasuna erabakitzen badute, eskubide eta interés legitimoetan konpon ezinezko defentsa-gabezia edo kaltea eragiten badute, aukerako izaeraz, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen bitartez araututako **administrazioarekiko birjarpen errekurtsua** aplikatuko zaie, edo Administrazioarekiko Auziaren Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean araututako **administrazioarekiko auzi errekurtsuaren** xede izango dira.


2.- Interesatuek gainerako izapide-egintzen aurkako jarrera alegatu ahal izango dute, prozedurari amaiera emango dion ebazpenean kontuan har dadin.

### **• ERANSKINA**

## **PROPOSAMEN EKONOMIKORAKO EREDUA**

..... jaun/andreak, ..... eko ..... kalea, .... zk.an bizi denak eta ..... N.A.N. zk. duenak, gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoarekin, bere izenean edo (ordezkaritza-ahalmenak adierazi: administratzaile bakara, ahalordeduna ..) gisa, ..... enpresaren izenean, ..... IFK zk.duenak eta ..... eko ..... kalea ..... PK ....., telefono zk, ....., eta ..... posta elektronikoa dituenak behar izanez gero, lizitazio-prozesuaren jakinarazpenei buruzko informazioa jasotzeko.

**HAUXE ADIERAZTEN DU BERE ARDURAPEAN:**



**LIZARTZAKO**  
**UDALA**  
**GIPUZKOA**

- 1.- Halaber, ezagutzen ditut baldintza teknikoan agiria, administrazio-klausula zehatzen agiria eta kontratu hau arautuko duten gainerako agiriak, eta oso-osorik eta salbuespenik gabe berariaz neure egin eta ontzat hartzen ditut.
- 2.- Ordezkatzen dudan enpresak betetzen ditu indarrean dagoen araudiak enpresa ireki, instalatu eta jardunean aritzeko ezartzen dituen baldintza eta betebeharrak guztiak.
- 3.- Obra gauzatzeko konpromisoa hartzen duela ..... €-ko prezioan (letraz eta zenbakiz adierazi behar da) eta ..... €-ko BEZarekin.
- 4.- Berme-eparearen luzatzeko konpromisoa hartzen duela .... Hilekoan.

Lizartzan Urdondo Kalearen Urbanizazio Obraren kontrataziorako Baldintza Pleguak aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartuak izan dira.

**BOSGARRENA. 2017/2 KREDITU ALDAKETA**

Udal honetako Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea irakurri da.

Idazkari-Kontu hartzaileak egindako txostenak dioenez, aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaio, eta zehazki Udal Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 foru arauaren 34. artikulua ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Era berean, Ogasun Batzordeak egindako aldeko txostena eta onepen proposamena irakurri dira.

Guzti hori kontutan hartuta, honako hau

**PROPOSATZEN DA:**

- 1.- Udal honen aurtengo ekitaldiko Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea onestea, proposamenaren eta ondoko laburpenaren arabera:

KAPITULUA	KONTZEPTUA	KREDITUAK		
		Egungoak	Aldaketak	Behin-betikoak
120.153.40.01	Lanetako Ofiziala. Oinarrizko Soldata	10.232,74	518,84	10.751,58
120.332.10.01	Liburutegiko Laguntzailea. Oinarrizko Soldata	3.840,20	332,29	4.172,49
120.920.10.01	Idazkari-Kontu hartzailea. Oinarrizko Soldata	12.671,54	950,60	13.622,14



**LIZARTZAKO**  
**UDALA**  
**GIPUZKOA**

120.920.11.01	Administrari Laguntzailea. Oinarrizko Soldata	10.498,04	506,66	11.004,70
120.920.12.01	Garbitzailea. Oinarrizko Soldata	4.791,36	236,46	5.027,82
210.153,40.01	Bestelako Mantenimenduak	30.705,46	731,20	31.436,66
210.161.00.01	Ur tuberi, depositu e.a. Mantenimendua	1.000,00	67,18	1.067,18
222.920.50.01	Izferi Ekarpina	10.277,80	468,25	10.746,05
227.231.10.99	Ilarki. Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua	12.761,35	4.922,24	17.683,59
226.341.00.01	Udalak Antolatutako Ekintzak	8.000,00	2.605,24	10.605,24
226.920.00.99	Bestelako Gastu Orokorrak	5.000,00	3.900,69	8.900,69
227.121.00.01	Proiektuak eta Lan Teknikoak	3.000,00	25,00	3.025,00
227.920.00.01	Eskola-Frontoia. Garbitasuna	27.000,00	2.664,87	29.664,87
<b>GUZTIRA</b>		<b>139.778,49</b>	<b>17.929,52</b>	<b>157.708,01</b>

**KREDITU GEHIGARRIAK FINANTZATZEKO PROPOSAMENA**

KAPITULUA	KONTZEPTUA	KREDITUAK		
		Egungoak	Aldaketak	Behin-betikoak
870.000.00.01	Diruzaintzako Remanentea	23.034,11	17.929,52	40.963,63
<b>GUZTIRA</b>		<b>23.034,11</b>	<b>17.929,52</b>	<b>40.963,63</b>

2.- Jendaurrean ikusgai jartzea, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin-betikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.

**SEIGARRENA. 2018 URTERAKO AURREKONTU OROKORRA**

Ekonomi Batzordean aztertuz gero eta, Hazienda Lokalak erregulatzen dituen Abenduaren 28ko 39/1988 Legearen 149-4 artikulua eta Erregimen Lokaleko Oinarriak Arautzeko Apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 90.1 artikulua eta Erregimen Lokaleko gaietan Apirilaren 18ko 781/1986 Erret Dekretu Legearen 126.1 artikuluen arabera, 2018 urterako Aurrekontu Orokorra aurkeztu da, honela geldituaz:

**SARRERAK**

Kapitulua	Izena	€ Guztira/
1	Zuzeneko Zergak	116.260,75
2	Zeharkako Zergak	1.000,00
3	Tasak eta Bestelako Zergak	78.938,46
4	Transferentzi Arruntak	450.800,79





**LIZARTZAKO**  
**UDALA**  
**GIPUZKOA**

5	Ondare Sarrerak	0,00
7	Kapital Transferentziak	0,00
9	Pasibo Finantzarioak	0,00
<b>SARRERAK GUZTIRA</b>		<b>647.000,00</b>

**GASTUAK**

Kapitulua	Izena	€ Guztira
1	Pertsonal Gastuak	229.793,84
2	Gastuak Ondasun Arrunt eta Zerbitzuetan	298.135,02
3	Finantza Gastuak	0,00
4	Transferentzi Arruntak	100.071,14
6	Inbertsioak	19.000,00
9	Pasibo Finantzarioak	0,00
<b>IRTEERAK GUZTIRA</b>		<b>647.000,00</b>

**2018 URTERAKO PLANTILLA ORGANIKOA**

**KARRERAKO FUNTZIONARIENTZAT GORDETAKO LANPOSTUAK**

IZENA	Lanp. Kop.	T.6/89 L. 43. Art.	Egoera	%
<b>IZAERA NAZIONALEKO FUNTZIONARIAK</b> Idazkari-Kontuhartzaitzaren Azpimaila				
IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA	1	A1/A2	J	70%
ADMINISTRAZIO OROKORRAREN MAILA Laguntzaileen Azpimaila				
ADMINISTRAZIO OROKORREKO LAGUNTZAILEA	1	C2	J	
ADMINISTRAZIO BEREZIAREN MAILA Azpimaila Teknikoa				
* <b>Mota: Erdiko Teknikariak</b> GIZARTE LAGUNTZAILEA	1	A2	H	36%
Administratiboa/ * <b>Mota: Laguntzailea</b> LIBURUTEGIKO LAGUNTZAILEA	1	C2	J	40%
Zerbitzu Bereziak * <b>Mota: Ofizioetako Pertsonala</b> ZERBITZU ANITZETARAKO OFIZIALA	1	C2	J	
GARBITZAILEA	1	E	J	



**LIZARTZAKO**  
**UDALA**  
**GIPUZKOA**

**2018rako LANPOSTUEN ZERRENDA**

**KARRERAKO FUNTZIONARIOEI ERRESERBATUTAKO LANPOSTUAK**

Lanp. Izena	Esk	Azpi esk	Titulazio	S.P	Ded	Ta	Mai	Os. Espez.	H.E.	Derr. Data	Egoera
IDAZKARI-KONTU HARTZ	Adm Oro	F.H.N	P Zien. - Zuzen Dipl	C	% 70	A1A2	23	18.480,42	4	91-02-06	Aktib.
ADMINISTRARI LAGUNTZAIL.	Adm Oro	Lagunt	Eskola Grad edo LH1	C	%100	C2	14	18.906,72	3	91-02-06	Aktib.
GIZARTE LAGUNTZAILEA	Adm Ber	Teknik	Diplomat	C	% 38,01	A2	17		3	91-12-01	Hutsa
LANETAKO OFIZIALA	Adm Ber	Zer Ber	Eskola Grad edo LH1	C	% 100	C2	16	19.020,68	2	91-02-06	Aktib.
LIBURUTEGIKO LAGUNTZAIL	Adm Oro	Lagunt	Eskola Grad edo LH1	C	% 41,84	C2	13	6.058,08	3	96-04-01	Aktib.
GARBITZAILEA	Adm Ber	Zer Ber	Eskola Graduat	C	% 55,78	E	8	8.163,26	2	92-05-01	Aktib.

**BEHIN-BETIKO LAN PERTSONALARI ERRESERBATUTAKO LANPOSTUAK**

Lanp. Izena	Esk ala	Azpi esk	Titulazioa	S.P	Ded	Ta	Maila	Os. Espez.	H.E.	Derr. Data	Egoera	Best. Otros
GIZARTE LANGILEA	Adm Ber	TEKN	Diplomad	C	% 38,01	A2	13	Ez/No	3	91-12-01	Mugagab	



**LIZARTZAKO**  
**U D A L A**  
**GIPUZKOA**

2018 urterako Aurrekontu Orokorra eta Aurrekontu Exekuziorako Udal Arauak, 2018ko Plantilla Organikoa eta Lanpostuen Zerrenda aho batez onartuak izan dira.

**ZAZPIGARRENA. ITE-EIT DOKUMENTUEN BERRIKUSKETA, KONTROLA ETA ERREGISTROA ZERBITZUAREN KONTRATAZIOA**

Kontuan izanik alkatearen 2017ko abenduaren 11ko probidentziaren bidez Udalak ITE-EIT DOKUMENTUEN BERRIKUSKETA, KONTROLA ETA ERREGISTROA zerbitzua kontratatu behar duela frogatu zela, eta kontuan izanik obra horren prezioa hau dela: Zerbitzuaren prezioa hau da: 4.800,00 € (BEZa kenduta) gehi 1.008,00 €, BEZari dagozkionak. Guztira 5.808,00 €.

Kontuan izanik 2017ko abenduaren 12an kontu-hartze txostena bidali zela, kontratua egiteak berekin dakarren gastua finantzatzeko behar adina kreditu eta kreditu egokia dagoela ziurtatzen zuena; eta kontuan izanik beste txosten bat igorri zela, kontratazioak indarrean dagoen aurrekontuaren errekurtsio arrunten zer ehuneko izango zen jakinarazten zuena, kontratatzeke eskumena zer organok duen zehazteko.

2017ko abenduaren 12ean, aplikatu behar den legeriari eta jarraitu behar den prozedurari buruzko idazkaritzaren txosten-proposamena bidali zela kontuan izanik.

Eskaera horri atxikitako dokumentuak eta Idazkaritzaren txostena aztertu ondoren, eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 14ko 3/2011 Legearen Bigarren Xedapen Gehigarrian ezarritakoarekin bat.


**HAU EBAZTEN DUT**

**LEHENENGOA.** ITE-EIT DOKUMENTUEN BERRIKUSKETA, KONTROLA ETA ERREGISTROA zerbitzua egitea kontratu txikiaren prozeduraren bidez DENA ARKITEKTURA kontratistarekin. Zerbitzuaren prezioa hau da: LAU MILA ETA ZORTZIREHUN (4.800,00,-) €- eta MILA ETA ZORTZI (1.008,00) € (Bez); guztira BOST MILA ZORTZIREHUN ETA ZORTZI (5.808,00).

**BIGARRENA.** Zerbitzuaren esleipenari dagokion gastua onartzea, indarrean dagoen aurrekontuaren 227.430.00.08 partidaren kargura.

**HIRUGARRENA.** Zerbitzua egin ondoren, faktura egin eta ordainketa izapidetzea, baldin eta bidezkoa bada.

**LAUGARRENA** Ebazpena jakinaraztea esleipendunei, hamar eguneko epean, ebazpena sinatzen den egunetik aurrera.



**LIZARTZAKO**  
**U D A L A**  
**GIPUZKOA**

**ZORTZIGARRENA. GOIENER. ARGÍ INDAR KONTRATUAREN ALDAKETA**

Lizartzako Udalak, IBERDROLArekin kontratatuak ditu, bere argi indar kontratuak.

GOIENER irabazi asmorik gabeko energi kooperatiba bat da. Gaur egun, berriztagarrietatik datorren energia kontsumitu eta bere eredu ekonomiko baten alde apostu egiten du.

Guzti hori kontutan harturik, Udalak dituen argi indar kontratuak, GOIENER-era pasatzea proposatu du.

Proposamena aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

**BEDERATZIGARRENA. TOLOSALDEKO KOMUNIKAZIO TALDEA**

TOLOSALDEKO KOMUNIKAZIO TALDEA S.M.k, 2018-2021 urte arteko Lankidetzaz Hitzarmena aurkeztu du, TKT-k eta Udalak, elkarlanean, hedabideen alorrean euskararen erabileraren normalizazio lanak bideratzeko.

Horretarako, TKT, alde batetik bigarren klausulan aipatzen diren ekoizpen ildoak garatu eta hobetzen ahalegintzeko konpromisoa hartzen du, eta aipatutak ildoak bideratzeko, herritarrei eskaintzen zaien zerbitzua ere baden heinean, hirugarren klausulan agertzen diren konpromisoak hartuko lituzke.

Udalak bere aldetik, proiektua indartu eta bere bideragarritasuna bermatzeko ekimen larriak garatzeko konpromisoa hartuko luke laugarren klausulan arabera.

Ekimen larriak, haurrengoak dira:

- a) Diru ekarpen zuzena. Proiektuaren luzerako bideragarritasuna eta egonkortasun ekonomikoa bermatzeko, hitzarmen hau lau urtekoa (2018-2021) izango da. Urtean urteko errola eguneratuaren arabera biztanleko 5,00 € emango dizkio, 2018, 2019, 2020 eta 2021 urteetan Udalak TKTeri. Erabaki hau urtez urte berretsi beharko du Udalak diru-kopuru zehatza adierazten duen berariazko ebazpena bidez, hartzaileak aurkeztutako aurreko urteko zuriaketa dokumentuak (hitzarmenaren 6. puntua) eta dagokion urteko egitasmoa aztertu eta gero.
- b) Publizitatea. Erreferentzialtasuna irabazteko, publikitatea egitea behartuak dauden iragarki ofizial eta eskelak Tolosaldeko Atarian jartzeko konpromisoa hartzen du



**LIZARTZAKO**

**U D A L A**

**GIPUZKOA**

Udalak tarifatik %50eko deskontuarekin. Gainerako publizitatea, urteko fakturazioaren arabera negoziatuko dute bi alderdiek; hala balitz, urtean-urtean adostutako plangintza komertzialean islatu litzateke.

- c) Beste euskarriak. Ohiko ekoizpenetik at, Udalaren eta TKT-ren artean osatuko den lan-taldeak, adostutako proiektua sustatzeko diru ekarpen bereziak egin ahal izango ditu udalak.
- d) Sozializazio eta banaketa. Herritarren eta bertako indar eragileen borondatea eta lankidetzaren erakartzeko Udala zerbitzuen kooperazioa izango du TKT-k
- e) Informazioaren kudeaketa. Udalak berak edo herrian sortzen den informazio jariora sistematikoki trukatzeko neurriak hartuko dituzte Udalak eta TKT-k

Ekarpenari buruz, segiarren klausulak honela dio:

“Seigarrena.- Aipatutako diru ekarpen zuzena (4.<sup>a</sup> puntua) honela egingo da: hitzarmenean adostutako diru-ekarpen osoa dagokion urteko egitasmoa eta aurrekontua aurkeztu eta hilabeteko epean jasoko du TKT-k. Urte amaieran, jardunaren oroitidatzia eta Udalaren diruekarpen osoa zuzentzeko fakturak edota beraien fotokopia konpultsatuak eta zerga zein gizarte segurantzako betebeharrak egunean izatearen ziurtagiriak aurkeztu beharko dira.”

#### Diru ekarpenari buruz

Hitzarmenaren xedea, eta alde biek hartutako konpromisoak aztertuz, argi dago, Lizartzako udalak, diru laguntza bat ematen dioa TKT-ri.

Zentzu horretan, Hitzarmen proposameneko VI aurrekarian aipatzen diren, Eusko Jaurlaritzak ohezkuntza, Hiizkuntza Politika eta Kulturako sailburuak “2016-2018 epealdian euskarazko hedabideak sendotu, eraginkortu, garatu eta normalizatzeko” diru-laguntzak emateko araubidea ezarri eta deialdia egiteko dena (Hedabideak deialdia), onartzen duen 2016ko uztailaren 20ko agindua, eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza Nagusiak programen kontura euskararen erabilera sozialaren esparruan diru laguntzak oinarri arautzaileak, diru laguntzak dira.

Hitzarmenak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa. Apirilaren 7ko 2/2016 Legearen, 7.5 artikulua xedatutakoa gainditzen du.



**LIZARTZAKO**  
**UDALA**  
**GIPUZKOA**

Artikulu horrek honeladio:

“Toki-erakundeek euskararen arloan aitortuak dituzten eskumenak baliatzeko, hitzarmenak izenpetu ahal izango dituzte; mankomunitate, partzuergo, elkarte eta udalerriz gairdiko bestelako erakundeak sortu edo halakoetan esku hartu ahal izango dute, eta elkarlanerako beste modu batzuetara jo ahal izango dute, erakunde publiko edo pribatuekin”.

Urriak 1eko Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 legearen 48. artikulua, hitzarmenen balio eta eraginkotasun baldintzei buruzkoa bere 7. atalean honela dio:

“Cuando el convenio instrumente una subvención deberá cumplir con lo previsto en la Ley 38/2003, de 27 de noviembre, General de Subvenciones y en la normativa autonómica de desarrollo que, en su caso, resulte aplicable.”

Kasu honetan, Diru-laguntzen legea izan litzateke aplikagarri, hitzarmenak diru-laguntza bat osatzen bai du.

Tolosaldeko Komunikazio Taldeak S.M. proposatutako lankidetzaz hitzarmenak, diru-laguntza bat gordetzen du. Beraz hitzarmena sinatu aurretik, Diru-laguntzen legeak dioena bete beharko da. Hau da, diru laguntza zuzena emateko baldintzak betetzen diren ikusi eta ala bada zentzu horretan izapidetu.

Guzti hori kontutan izanik, eta Diru-laguntzen legeak dioena betetzen denez, 2018 urterako, 3.105,00 €-tako diru-laguntza zuzena ematea erabaki da.


**HAMARGARRENA. MOZIOAK**

**AZAROAREN 25a, EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA EZABATZEKO NAZIOARTEKO EGUNA**

**ADIERAZPEN INSTITUZIONALA**

---

Azaroaren 25a, emakumeen kontrako mota guztietako indarkeria gaitzesteaz gain, indarkeria sortzen duten agente eta egitura guztiak gaitzesteko eta aski dela esateko egun bat da. Eta egun horretan erakunde publikoek, borroka horretan dugun lehenasunezko agente-izaera berretsiz, konpromiso zehatzak hartu behar ditugu. Emakumea izateagatik soilik indarkeria jasateko aukera txikiena dagoen bitartean, gure herrian ez dugu bakea edo normalizazioa lortuko.



**LIZARTZAKO**  
**U D A L A**  
**GIPUZKOA**

Horregatik, Lizartzako Udalaren EH Bilduko taldeak honako adierazpen instituzional hau aurkeztu nahi du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta ondoren onartzeko.

**ARRAZOIA:**

Azaroaren 25a "Emakumeen kontrako indarkeria ezabatzeko nazioarteko eguna" dela-eta, Lizartzako Udal honek, emakumeek indarkeria matxistatik aske bizitzeko aukera izango duten guneak eraikitzeko xedez, herrialde eta lurralde askeak lortzeko, emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasunean oinarritutako elkarbizitza-eredu askeak errealitate bihurtzeko, egitura sozial paritarioa lortzeko xedez, gure herrialde-konpromisoa sakontzea gure gain hartzen dugu, eta era berean, herritar guztien konpromiso politikoa sakontzen jarraitzeko asmoa dugula berresten dugu.

Herritarren bizitza kolektiboa kudeatzeko ardura duen erakunde orok bere agenda politikoaren eta jardun instituzionalaren lehentasun gisa indarkeria matxistarik gabeko herrialdeak eta lurraldeak eraikitzea izan behar du, baita gizarte igualitario baten defentsa ere, non emakumeek euren burua aske sentituko duten.

Sistema kapitalista neoliberalak patriarkatuarekin duen aliantzak, azken urteotan bizi dugun krisi sistemikoak bizkortu egin duenak, emakumeen bizitzan zuzeneko inpaktu garrantzitsua izaten jarraitzen du. Horrela, aurten ere, Hego Euskal Herrian indarkeria matxistaren datuek gorantz jarraitzen dute, eta % 18,2 handitu dira 2016. urtean 2015. urtearekin alderatuta. Emakume asko, eta askotan ahaztu egiten ditugun haien seme-alabak hil egin dituzte aurten, eta sexu-indarkeriako kasu asko ere izan dira, batez ere udako herri-festetan.

Bitartean, kontzeptu horiek despolitizatzen dituen sistema batek bere gain hartzen ditu kontzeptu feministak, eta edukirik gabe uzten ditu, berdintasun faltsuko egoera bat normalizatzen lagunduz. Errealitateak aurkakoa adierazten digu; datu mediatiko eta ezagunenek, gorputzen aurka euren adierazpenik muturrekoenean eragindako zuzeneko indarkeriaren (bortxaketak eta heriotzak) datuek deseroso sentiarazten eta oihartzun soziala sortzen duten arren, ikus dezakegu indarkeria mediatiko eta soziala handitu egiten dela eta indarkeria fisikoa jasan duten emakume horiek beraiek zalantzan jartzen dituztela, erasoaren errua botatzen dietela eta, kasurik onenean, birbiktimizatu egiten dituztela, euren baliatzeko gaitasuna kenduz. Adibide gisa, salaketa faltsuei ematen zaien garrantzia azpimarratu nahi dugu, guztizko salaketen % 0,001 besterik ez diren arren.



**LIZARTZAKO**

**U D A L A**

**GIPUZKOA**

Aldi berean, oihartzun txikia duten indarkeria-adierazpenak daude, horiek normalizatzen dituztenak eta emakumeen kontrako desberdintasunak eta bereizkeria iraunarazten dituztenak; indarkeria sinbolikoaren kasua da, komunikabideen, publizitatearen edota musikaren bitartez sortzen dena, emakumeak zapaltzen dituzten arauak eta esanak ezarriz, edota indarkeria ekonomikoaren kasua, soldata txikiagotan, lan-baldintza txarragotan eta abar islatzen dena. Era berean, aurten ere kezka handiarekin ikusten dugu emakumeen kontrako indarkeria handitu egin dela herrietako jaietan eta aisialdirako guneetan. Ildo horretan, bereziki kezkatzen gaituzte gazteengan gertatzen diren botere-erlazioak, askotan kontrola, gehiegikeria eta, zenbaitetan, indarkeria fisiko eta sexuala barne.

Feminismoak erakutsi digu errealitate bat aipatzeak ikusgai bihurtzen duela: indarkeria, bere adiera guztietan, desberdintasunen sistemaren zati den heinean, ikusezin bihurtu da eta alderdi pertsonalei garrantzi handiegia ematen zaie, eta ikusarazi nahi digute indarkeriazko gertakariak arrazoi pertsonalen ondorio direla eta ez arrazoi sozialen ondorio. Ez da nahikoa indarkeria-adierazpen jakin batzuk aipatu eta salatzea horrelako ekintzaren bat gertatzen den bakoitzean; arrazoiaren gainean jardun behar da, sustraira jo behar da.

Beraz, beharrezkoa da indarkeria-adierazpenen arrazoietan sakonduko duen ahalegin bat egitea, emakumeen ekiteko ahalmenak onartuz, haien erruduntasuna gaitzetsiz eta indarkeria matxistarik gabe bizi ahal izan daitezen lagunduz. Eta horretarako ezinbestekoa da gure gizarte-ereduaren egitura-aldaketa bat egitea; hori ez egitea bidezko aldaketa baten aldeko konpromisoari uko egitea izango litzateke.

Eta zeregin hori, gure egin behar dugun konpromiso hori, gizartea osatzen dugun agente guztiok egin behar dugu, bestela indarkeria matxistari eusten jarraituko genukeelako. Denon erantzukizuna delako bakoitzaren eragin-eremutik aurre egitea sortzen edo babesten ari den indarkeria matxista amaitzeko: erakunde publikoak, kultura-agenteak, komunikabideak, lan-arloko agenteak eta agente ekonomikoak.

Baina pertsonak, familiek, adiskideek, kolektiboek eta arduradun publikoek ere zuzeneko erantzukizuna dute.

Indarkeria matxistaren aurka borrokatzeko modu desberdinak ere babestu behar dira, helburu bakarra izan arren horren aurka borrokatzeko modu asko egon daitezkeelako: autodefentsa feminista bide bat da, baina era berean baliozkoak dira Beldur Barik ekimena, edo herrietako festetako testuinguruan aktibatu diren ekimenak eta ekintzak, elkarteek edo auzoek egiten dituzten ekimenak eta abar, denei eman behar zaie babesa.





**LIZARTZAKO**

**U D A L A**

**GIPUZKOA**

Horregatik, indarkeria matxistaren aurkako nazioarteko egun honetan, sendo adierazi nahi ditugu Euskal Herria feminista, justu eta ekitatezko baten aldeko aldarrikapena, bide horren eraikuntzan honako konpromiso hauek gure gain hartuz:

**PROPOSAMENA:**

- 1.- Lizartzako udal honek, Emakumeen Munduko Martxak bultzatutako indarkeria matxistari aurre egiteko protokoloa bere egiten du.
- 2.- Lizartzako udal honek, kolektibo feminista eta emakume-taldeekin elkarlanean, herriari lotutako indarkeria matxistei aurre egiteko plan bat jarriko du martxan, horretarako beharrezkoak diren baliabide ekonomiko eta tekniko guztiak aktibatuz.
- 3.- Herriko Indarkeria Matxistaren aurkako Behatoki bat jarriko du martxan, erasoak identifikatu eta salatzeke, indarkeria hori ezabatzeko eta gertatu baino lehen prebenitzeko, emakume-taldeekin eta kolektibo feministekin elkarlanean.
- 4.- Lizartzako Udal honek, izateko eta izendatzeko modua orekatzeko xedez, aurrerantzean "indarkeria matxista" adiera erabiliko dugu, adituek hori erabiltzen baitute modu normalizatuan.
- 5.- Lizartzako Udal honek, 2018ko aurrekontuak definitzeko unean, berdintasun-unitateei beharrezko baliabide tekniko eta ekonomikoak emango dizkie, eta unitate horiek egonkortu eta indartzeko konpromisoa hartzen du.
- 6.- Lizartzako Udal honek Foru Aldundiari eta Emakunderi eskatzen die emakume eta gizonen arteko berdintasunaren alorreko aurrekontu-partidak handitzeko, berdintasun-zuzendaritzak sendotzeko, epaitegietako genero-unitateak indartzeko eta indarreko legeria berraztertzeke konpromisoa hartzeko.
- 7.- Lizartzako Udal honek hezkuntzako agenteei zuzeneko deia egiten die curriculum-lerroetan genero-berdintasuna sar dezaten.
- 8.- Erakunde honetatik, borroka feministaren alde hartu dugun konpromisoa berretsi nahi dugu, indarkeriarik gabeko gizarte demokratiko bat eraikitzeke bide eta tresna nagusia den heinean.
- 9.- Bat egiten dugu mugimendu feministak azaroaren 25erako deitutako mobilizazioekin, eta jendarte osoari ere dei egiten diogu mobilizazio horretan parte har dezan.



**LIZARTZAKO**

**U D A L A**

**GIPUZKOA**

Nazioarteko Emakumeen kontratako indarkeria ezabatzeko adierazpen instituzionala, aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

## **KATALUNIAREKIN BAT, DEMOKRAZIOAREKIN BAT.**

### **MOZIOA**

Urte luzeetako prozesu baten baitan eta herritarren gehiengo baten eskariari ateak irekiz, etorkizuna libreki erabakitzeko bitarteko demokratikoz hornitu du Kataluniako herriak bere bidea. Kataluniako instituzio nagusiek herritarren nahiei bide emateko erabaki irmoa hartu dute.

Katalunian herritarren borondatearen eskutik eman diren urratsek, Madrilen aldetik indarraren, mespretxuaren eta zaharkitutako legeen ustezko arrazoiarekin erantzun da.

Bide demokratikoen aurkako eraso larri honen aurrean, Lizartzako Udalak honako mozio hau eztabaidatu eta onartzen du:

- 1.- Udal honek, zilegitasun osoa aitortzen dio Kataluniako Parlamentuak egingo duen autodeterminazio erreferendumari. Izan ere, libreki adierazitako herritarren borondatea da tresna politikorik eraginkorrena edozein herri edo kolektiboren etorkizuna eraikitzeko.
- 2.- Udal honek, Kataluniar herriaren eta Parlament-aren erabaki burujabeen aurka Espainiar estatutik buruturiko erasoak salatu eta arbuiatzen ditu. Madrilgo Gobernu, epaitegiak eta Auzitegi Konstituzionala ezin direlako Kataluniako herritarren gehiengo zabalak adierazitako borondate demokratikoaren gainetik jarri.
- 3.- Modu demokratikoan aukeratuak izan diren Kataluniako alkateak deklaratzera deitzea irmoki salatzen dugu. Demokrazia praktikan jartzea ahalbidetu nahi duten alkateak inputatzea deitoratzen du.
- 4.- Udal honek, Euskal Herria, Katalunia edo munduko gainerako herrietan, herritarren borondate askean oinarrituta garatzen dituzten prozesu politikoen alde egiteko konpromisoa hartzen du.
- 5.- Udal honek urriaren bateko emaitza errespetatzen du eta Instituzio zein eragileei ere berdina egitea eskatzen die. Horretarako erabaki honen berri, Kataluniako Parlament-eko lehendakariari, Madrilgo Gobernu presidenteari eta Auzitegi



**LIZARTZAKO**  
**U D A L A**  
**GIPUZKOA**

Konstituzionaleko presidenteari ematea erabakitzen du. Gure udalerriko herritarrei ere jakinaraziko zaie erabaki honen berri.

6.- Urriaren bateko galdeketa bitarte Udaleko balkoian estelada jartzea onartzen du Udalbatzak, Kataluniako instituzio eta herritarrei gure babesa adierazi asmoz..

Kataluniarekin bat, Demokrazioarekin bat mozioa, aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

**HAMAIKAGARRENA. BESTELAKOAK**

Ez dago bestelakorik.

Eta beste gairik ezean, alkateak amaitutzat eman du bilkura, arratsaldeko 19:00tan, eta nik, idazkari naizen aldetik, horren fede eman dut.

**ALKATEAK**  
Izpta: Leire Gordo Castro

**IDAZKARI-KONTU HARTZAILEAK**  
Izpta: Ana Jesus Zabala Garmendia